EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

KONTROL MOZIOA

Donostiarren interesak Eusko Jaurlaritzaren aurrean defendatzeko beharra dela-eta

Josu Mirena Ruiz Martin EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

EIT Food (European Institute of Innovation & Technology) erakundeak gure erkidegoan egoitza irekiko duela jakin dugu. EIT-ak Europar Batasunak bere helburuak lor ditzan (iraunkortasun ekonomikoa eta enplegua) sortutako erakunde independenteak dira. Gaur egun, honez gain, beste bost daude: Climate-KIC, Digital, InnoEnergy, Health eta Raw Materials. Eta datorren urtean bi EIT berri irekiko dira: Manufacturing eta Urban Mobility. Institutu hauek hiruki bat osatzen dute, bere erpinetan elkarlan enpresak, unibertsitateak eta ikerketa zentroak kokatuz. Aurreko hilabetean galdera luzatu genuen erakunde honen kokapenaz eta erantzuna argirik jaso ez zenez hilabeta honetan interpelazioa aurkeztu behar izan dugu. Azkenean Bilbora joan dela jakin dugu, Eusko Jaurlaritzak erabakita.

Egunotan ere jakin dugu Bidebietako Institutua ixtera doala. Hezkuntza eskumenak, etapa honetan Eusko Jaurlaritzari dagozkion bere osotasunean eta hedabideen bidez jaso den informazioaren arabera Eusko Jaurlaritzaren erabakia izan da heziketa zentroari etorkizuna ez ematea. Udal Gobernuari eta Udalbatzari dagokigu, aldiz, Donostiako eta donostiarren interesak defendatzea. Hezkuntza zentroa Bidebietan ixtea galera handia izango da, hezkuntza eremuan eta eremu sozial zein ekonomikoan, eta testuinguru horretan Eusko Jaurlaritzaren aurrean interes horiek defendatzeko irmotasuna guztiz beharrezkoa da. Ikusita beste hainbat kasutan gauzak nola joan diren honetaz hausnartu eta jarrera finkatzea beharrezkoa da.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

> Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako eta donostiarren interesak defenda ditzala Eusko Jaurlaritzaren aurrean, hiriko eta herritarren aspektuak kontuan hartuta.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH BILDU udal taldeko zinegotzia